

Harrobia

Ehun ekonomiko eta sozialaren hezurduran, Lanbide Heziketa bizkarrezur

Gizartearen behar ekonomikoei ez ezik, lan-merkatura joango direnen heziketa integrala ere sustatu nahi du zentroak

» Redacción SRB

Aurreko urteetan egin ohi duen bezala, Confefaskek 2018rako enpresa-ehunak izango dituen erronken txostena argitaratu berri du. Txosten horren esanetan, aurreko enpresen %47,9k emaitza hobea izatea aurre ikusten du, hots, fakturazioa handituko dutelakoan daude. Aitzitik, %5,3k bakarrik espero du fakturazioa jaistea. Hori dela eta, enpresen %45ek langileak kontratatzeke asmoa erakusten du, %3,5ek, berriz kontratazioak jaitziko direla diote. Honek esan nahi du enpresek 16.000 kontratazio berri egiteko asmoa agertu dutela. Hazkunde horren arrazoi nagusiak jardueraren beraren hazkundera, jubilatzen direnen erreleboa eta jardura berrietatik eratorritako kontratazio-beharrak dira.

Beste alde batetik, gauza jakina da enpresak kexu azaldu direla hezkuntza-sistema ez datorrelako bat ehun ekonomikoak dituen beharrek, hots, enpresek demandatzen dituzten langileak inizatiba handikoak, komunikatzeko gaitasun handikoak, enpatikoak eta, azken batean, proaktiboak izan behar direla. Hortaz, esan daiteke trebetasun tekniko handiak zituen langilearen aldean, trebetasun sozial eta pertsonalak dituen langilea gailentzen ari dela.

Haatik, esan beharra dago Lanbide Heziketak orain dela urte batzuk heldu ziola bide horri. Etekin Handiko Zikloak agertu zirenetik urte batzuk joan dira, nahiz eta ora-



Lanbide Heziketako ikasleek baikortasunez begiratzen diote etorkizunari.

indik metodologia sistematizatzeko prozesuan gauden. Zentro askotan eraikinak goitik behera aldatzeko izugarriko inbertsioak egiten ari dira, irakasleak ez dira berririo irakasle izango, coach baizik; talde-lana oinarritzeko lan-estrategia bilakatu da, ikasleei proposatzen zaizkien atazek –erronka izenez eza gutzen direnak– ikasleen inizatiba, erabakitzeko ahalmena eta komunikatzeko gaitasuna sustatzen dituzte.

Arian-arian inplementatzen ari den prozesu hori, baina, emaitzak ematen hasia da; pentsa dezagun Lanbide Heziketako ikasleen egoaldia zentroan urtebete eta erdikoa dela; areago oraindik, zentroan egoteaz batera lana uzartzen duen ikaslearen kasuan, lehenengo urteko ekainean prest egoten da lan-munduan sartzeko, heziketa dualari esker. Horrek esan nahi du, egun, dagoeneko, Lanbide Heziketako sistemak etorkizuneko langileak hezten ari dela eta horietatik berak, egun, dagoeneko, lan-merkatuan sartzen ari direla.

Alabaina, Lanbide Heziketak, bere aldetik, erronka luzatu nahi dio lan-merkatuari, ausardiaz joka dezan: ikasleari aukera eman behar zaio eskarmentua bereganatzeko, bere enplegarritasun maila hobetzeko, aipatutako trebetasunak garatzeko... Azken batean, sistemak langile fin, prestu eta trebatuak demandatuko baditu, bere hondar alea ere jarri beharko du. Oraindik orain, ikasleak praktiketan hartzeko edo Hezibin aritzeko enpresak topatzea ez da lan makala, are gehiago dualaren kasuan. Ez-jakintasuna batetik, interes falta bestetik; kasuan kasu, Europarekin alderatuta atzeratu samar gaude oraindik, eta horretan enpresen inplikazioa ezinbestekoa da. Bigarren sektorea, sektore produktiboa alegia, da horren premia nagusia duena, eta bide horri ekin dion lehena. Dena dela, oraindik bide luzea dugu egiteko.

Nolanahi ere, horiek ez dira Lanbide Heziketaren erronka bakarrik. Lanbide Heziketako zentroek heziketa integrala eskaini behar diete ikasleei; bestela esanda, gizarte

integratzeko gizakiak hezitu behar ditu. Horrek esan nahi du gizartearen indarrean dauden balioekin bat datozen gazteak bidali behar ditugula lanera, unibertsitatera, enpresak sortzera, administrazioan lan egitera, GKEetan lan egitera... Enpresek duten erantzukizun sozialarekin bat egin ez ezik, gizartearen eraldatzaile ere izan behar dira egungo gazteak. Bide horri ere ekin egin dio Lanbide Heziketak. Genero-berdintasunaren ikuspegia, euskararen normalizazioa eredu eleanitz batean, inklusibitatea edo jasangarritasuna dira lanbide heziketako zentroetan lantzen ari diren gaiak, besteak beste.

Pertsona proaktiboak

Baina pertsona proaktiboak izan behar dira, ereduak. Hartara, oihartzun handiko sektore batzuetan ezinbesteko bihurtu da euskarazko eskaintza; horra marketin eta publizitatearen sektorea, non sare sozialetan eta, oro har, hedabideetan langile baten lanak izan deza-

keen zabalpena aintzat hartuta, langileak enpresaren irudia gizarteratzen duen, eta gizarteak demandatzen diona elebitasuna da, hizkuntzaren zuzentasuna, gizartearekiko identifikazioa. Beraz, trebetasun linguistikoak garatzeak enplegarritasuna hobetzen lagundu ez ezik, hizkuntzaren normalizazioari berrari ere egiten dio mesede. Zer esanik ez osasungintzan, non pazienteen bizia edo, behinik behin, bizi-kalitatea jokoan dagoen, edo industria sektorean, non lehia hain da estua, ezen epeak ez betetzeagatik proiektuak galtzen baitira. Horietan guztietan arrakastaren eta porrotaren arteko muga lausoa da, gaur erakundera hemen dago, bihar?

Bolo-bolo dabilen beste kontu bat ekintzailetzarena da. Ekintzaile izatea ez da nork bere enpresa sortzea, esanahi zabalagoko kontzeptua da; esate baterako, nork bere enpresan proposamenak egiteko gaitasuna eta ausardia edukitzea. Eta proiektuak abiatzeari gagozkioa, ekonomia sozialeko enpresak sortzea ere ekitea da, ekonomia sozialeko proiektuak abiatzea bezainbat. Funtsean, ekintzailetzaz hitz egiten dugunean, berritzaile ari gara, ikusmoldeak aldatzeaz ari gara. Zentzu horretan Lanbide Heziketako ikasleek ere egungo gizarteari ekarpen interesgarriak egin diezazkiokete, beraiek egituratuko baitute etorkizuneko gizartea, gizarte hori justuagoa izango bada.

Horiek, beraz, Lanbide Heziketako ikasleen etorkizun hurbileko erronkak eta, bidenabar, lanbide heziketako zentroena: ikas-irakasleko metodologia berriak ezartzea, enplegarritasuna hobetzeko heziketa duala sustatzea, gizarte bidezkoago bat eskatuko duten gazte ekintzaileak hezte eta, horren bestez, egungo gizartearen indarrean dauden balioekin bat egiten duten gazteak. Hori guztia trebetasun teknikoak ahaztu gabe. Ikus-entzunezkoetan, Informatikan, Osasun zerbitzuetan, Marketin eta Publizitatean, Kirol zerbitzuetan edo Industrian hezurmamituko da geroa!



MURGIL ZAITEZ EUSKARAZ LAN MUNDURA!

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Marketina eta Publizitatea
- 3D Animazioak, Jokoak eta Ingurune Elkarreragileak
- Egokitze-fisikoa (Jarduera Fisikoak eta Kirolak)

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Mikroinformatika-Sistemak eta Sareak
- Natur Ingurune Gorpuz eta Kirol Ekintzen Gidaritza (eskaintza partziala)

AURREMATRIKULA EKAINAREN 4TIK 15ERA

Harrobia plaza,4
48003 Bilbo

944724366

www.harrobia.eus

harrobia
ekinez egina

EUSKO JAHLARITZA
GOBIERNO VASCO

Fp